

MARKINA-XEMEIN / Peru Abarkako narrazio saria emango dute bihar

Gaur irakurlearen txokoa egongo da, eta barikuan solasaldi eta irakurraldia; biak, herri bibliotekan.

M. IBAIBARRIAGA ZUBIKARAI

Liburuaren Eguna ekitaldiz beteta dator Markina-Xemeinera. Urtero legez, hainbat ekitaldi prestatu ditu herri bibliotekak egun hori ospatzeko. Barikuan, Liburuaren Egunean bertan, Peru Abarka Lehiaketako narrazio saria jakin eragingo da. Behin hori argitaratuta, ilustrazioen lehiaketa zabalduko da. Horretara beharrak aurkezteko epea ekainaren 25era arte egongo da. Informazio gehiago www.peruabarka.com helbidean jaso daiteke.

Gaur, irakurlearen txokoa

Gaur iluntzean irakurlearen txokoa egongo da herri bibliotekan. 17:00etan, El corazon es un cazador solitario Carson McCullers-en obra aztertuko dute. Ostean, 19:00etan, Raul Zelik-en Lagun armatua liburuaz egingo da berba. Bihar, Lagun armatua liburuan oinarritutako irakurraldia eta solasaldia egongo da liburutegian, Gatazka intimoak-Euskal arazoa kanpoko begietan izenburupean. Solasaldian, liburuaren itzultzailea den Edorta Matauko, Petra Elser eta "gonbidatu berezi bat egongo dira. Ekitaldi hori ere herri bibliotekan izango da, 20:30ean.

Uhagonen, Marquez

Aurten, Gabriel Garcia Marquezen Cien años de soledad nobela ezaguna argitaratu zeneko 40. urteurrena da. Horregatik, omenaldi modura, erakusketa bat antolatu dute herri bibliotekak eta Uhagonek elkarlanean. Nobelari lotuta Pablo Torrecilla madrildarrak egindako marrazkiak daude ikusgai. Torrecilla marrazkilaria eta ilustratzailea da, besteak beste.